

EKONOMIAREN TALAIAN

Corrugados eta akusazio faltsuak



JUAN MARI ARREGI

Cristian Lay (CL) talde industrialak Azpeitian Corrugados berriro irekitzeari uko egin izanak erreakzio politiko eta sozial handia ekarri du. EAJk -Gipuzkoako Aldundia, Eusko Jaurlaritzza eta bere fronte mediatikoa erabiliz-lantegia berri irekitzea galarazi izana leporatu dio Nagore Alkorta alkateari (EH Bildu). Baina Azpeitiko Udalaren arabera, ez dago bideragarritasun planik, ezta proiektu serioirik ere, eta, batez ere, legez kanpokoa da lehengo instalazioetan egitea.

Tristea izan da ikustea alderdi jeltzaleak zein amorrus akusatatu dituen ezker abertzalea eta sindikatu abertzaleak (ELA eta LAB). Jeltzaleek diotenez, hauek ez dute herriaren ongizatea nahi, ezta Azpeitian enplegua sortu ere, eta Euskal Herriko enpresen desegite industrialaren edo hemen inbertitzeari uko egitearen erantzuleak dira. Nola mantentzeko tesi hori aurpegia gorritu gabe? Azpeitiko eta Euskal Herriko jendea tentela dela uste al dute? Azken egunotan hedabideetan agertu izan direnean, jeltzale askok anti-sindikalismo abertzale sutsua sustatu dute, enpresa eta erakunde patronal kapitalistek izan dezaketena baino handiagoa.

Polemika honen erdian, CLk dio Corrugados berrabiatuz gero zuzeneko 200 lanpostu eta zeharko beste 500 sor daitezkeela. Errailetatik hitz egin beharrean, ona litzateke egoera bideratzea eta elkarrekin lan egitea gaur egun bideragarri den norabide bakarrean: Corrugados birkokatzea gaur egun legalki eta ingurumenari dagokionez posible izango litzatekeen tokian, Trukutxon. CLk benetan nahi badu altzairutegia berriro ireki eta Azpeitian enplegua sortu, eta aldundiak, Jaurlaritzak eta udalak asmo horri babesa eman nahi badiote, hor dago Trukutxo. Baina akusazio faltsuak alde batera utzi behar dira. ●

ANALISIA



CEAQUA

Ceaqua kereila argentinarraren aldeko plataformako eta Amnistia Internazionalako kideak Espainiako Kongresu atarian bilduta, Memoria Demokratikoaren Legeak aurrera egin dezala eskatu eta CGJPren jarrera gaitzesteko.

Frankismoaren apologia, askatasunaren izenean?

URKO APAOLAZA AVILA

Uste al duzu adierazpen askatasunak frankismoa, nazismoa edo faxismoa bezalako ideologia totalitarioak babestu behar dituela? Galdera hori luzatu diote Unidas Podemos, ERC, EAJ, Junts eta EH Bilduko europarlamentariak Europako Batzordeari. Izan ere, Espainiako Estatuko Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko (CGPJ) bokalen arabera, Francisco Franco bezalako fundazioek apologia frankista egitea adierazpen askatasunak babesturik dago, "biktimak ez badira umiliatzen", Espainiako Memoria Demokratikoaren Legearen inguruko ebazpen proposamenean idatzi dutenez.

Europarlamentariak uste dute baieztapen horrek talka egiten duela 2018an Estrasburgoko ganberak indarkeria neofaxistaz onartutako erresoluzioarekin -"Ideologia eta intolerantzia faxistak demokraziaren beraren aurkako erasoarekin lotuta daude beti", zioen testuak-. Espainiako Memoria Historikoa Berreskuratzeke Elkarteak, bere aldetik, CGPJri leporatu dio biktimen artean "apartheida" sortzea eta frankismoaren biktimei ez ematea terrorismoarenei aitortzen dien babes bera, gorazarre eta umiliatzeen aurrean.

Memoria Demokratikoaren Legeak jasotzen duen puntuetako bat da fundazio frankistak ilegalizatzea; baina legea onartzeko prozesua gelditu da eta oztopoz beteta dago. Ceaquak eta Amnistia Internazionalak CGPJri eskatu diote bere ebazpena lehenbailehen eman dezala -ekainaren 7an bildu da pleno-, "debate parlamentarioak segi dezan". Izan ere, erakunde horien ustez, lege proposamenak aurrerapausoak dakartzen arren, hobekuntzak behar ditu egia, justizia eta erreparazioaren arloan: "Ezin da gizarte bezala aurrera egin gizateriaren kontrako krimenek inpunitean jarraitzen badute".

Botere judizialaren jarrerak erakusten du oraindik kristalezko sabai asko dagoela gaiztatzeko. Antzeko zerbait ikusi dugu Gasteizen Terrorismoaren Biktimen Memorialarekin: milaka biktima diskriminatu eta kanpoan utzi dituela salatu du Memoria Osoa plataformak. Galtzaileen eta garaileen errelato frankista hezurretaraino sartuta dago oraindik, askatasunaren izenean oihal ustez demokratiko batez estali nahi bada ere. ●